

José Luis Fernández Maure
Iñaki Mujika Aizpurua

Creanovak

Lanbide Heziketan
sormena bultzatuko du

El impulso de la
creatividad en la FP

“2010eko martxoan, zenbait ikastetxetako 95 ikasleek eta zortzi irakasleek parte hartu zuten egonaldi batean. Honen helburua sormenaren errendimenduan nola eragitea izan zen”

“En marzo de 2010, 95 alumnos y alumnas de diferentes centros de FP y ocho profesores participaron durante tres días en unas jornadas con el objetivo de mejorar el rendimiento en el campo de la creatividad”



2008. urtean, hainbat herrialdetan ikaskuntzaren arloan ziharduten zenbait eragilek, bilera batzuk egin ondoren, nazioarteko proiektu bati ekitea erabaki zuten. Proiektu horrek, hiru urtetan, honako galdera hauei erantzutea zuen xede:

Zer da guretzat ikaskuntza sortzailea?

Zer baldintza bete behar dira ikaskuntza sortzailea gauzatzeko?

Nola bultzatu daiteke ikaskuntza sortzailea?

Erantzun egokiak aurkitzeko, hainbat herrialdetan garatu beharreko estrategia bateratua prestatu zuten. Estrategiak honako fase hauek bete behar zituen:

- 2009an, sormenaren sektorean jardunbide egokiak antzemateko ikerketa egitea Estonian, Finlandian, Irlandan, Italian, Eskozian eta Euskal Herrian, bai ikaskuntza-komunitateetan eta baita industria sortzaileen sektorean ere.
- Ikaskuntzan sormena sustatzen duten faktoreak antzematea: beharra, askatasuna, interakzioa eta ingurunea.
- 2010ean, faktore horietako batzuk erabiliz, lau herrialdetan esperimentazioa egin eta telebistarako dokumentala prestatzea.
- 2011n, azterketa konparatiboa egin eta ikaskuntza-komunitateetan sormenaren alorrean lan egiteko europar elkarteak sortzea.

Esperimentazioari dagokion hirugarren puntuaren barruan, iragan martxoan hiru eguneko egonaldi horretan, Zarauzko Igerain aterpetxean, CREANOVA proiektuaren bazkide diren EHUK eta TKNIKA antolatua.

Lanbide Heziketako zenbait ikastetxetako 95 ikasleek eta zortzi irakasleek parte hartu zuten egonaldi horretan. Esperimentazio horrek helburu hau zuen: sormena bultzatzen duten elementu horiek erabilita, zenbait arlotako ikasleei prestakuntza espezifikoa eskaini eta faktore horiek sormenaren arlotan errendimenduan nola eragin eta hobetu dezaketen aztertzea.

En el año 2008, y tras varias reuniones entre agentes de diversos países que trabajan en el campo del aprendizaje, se decide preparar un proyecto internacional que a lo largo de tres años intente dar respuesta a tres preguntas:

¿Qué entendemos por Aprendizaje Creativo?

¿Bajo qué condiciones se da el Aprendizaje Creativo?

¿Cómo se puede impulsar el Aprendizaje Creativo?

Para buscar las respuestas adecuadas se prepara una estrategia común a desarrollar en diferentes países y que tendrá en cuenta las siguientes fases:

2009. Realización de una investigación en Estonia, Finlandia, Irlanda, Italia, Escocia y Euskal Herria, para identificar buenas prácticas en el sector de la creatividad en comunidades de aprendizaje y en el sector económico e industrias creativas.
- Identificación de factores que promueven el desarrollo de la creatividad en el aprendizaje: necesidad, libertad, interacción y entorno.
2010. Experimentación en cuatro países utilizando varios de esos factores y realización de un documental para la televisión.
2011. Análisis comparativo y constitución de una asociación europea que trabaje en el campo de la creatividad en las comunidades de aprendizaje.

En este tercer punto, el de la experimentación, en el mes de marzo se ha llevado a cabo una estancia de tres días en el albergue Igerain de Zarautz organizada por la EHU y TKNIKA, que son socios del proyecto CREANOVA.

En ésta han tomado parte 95 alumnos y alumnas de diferentes centros de Formación Profesional y ocho profesores. El objetivo principal de esta experimentación ha sido utilizar esos elementos que impulsan la creatividad para dar una formación específica a los alumnos de diferentes ramas y analizar cómo esos factores pueden influir y mejorar el rendimiento en el campo de la creatividad.

Gazteek talde mistoetan eta ikasgelatik kanpo lan egin dute eta programa trinkoa bete dute, honako alderdi hauek barne hartuta:

1. Sormenaren arlotan adituen hitzaldiak:

- Guillermo Dorronsoro, Innobasquekoa: Zergatik izan behar dugu sortzailea?
- Jon Rodríguez, Philips Holandakoa: Nola eragin daiteke sormena?
- Fernando Alonso, IZINKERekoa: Lan-giroan sormena eragiteko teknikak.

2. Talde mistoetan lan egin eta zenbait teknika erabiltzea:

- Bono-txapelen metodoa: Iñaki Mujika.
- Lego metodoa: Creativity Centrum
- Hainbat metodologia: IZINKER.

3. Story Telling. Enpresaren eta sormenaren arloetan norberaren esperientziak azaltzea:

- Asier Esnal, DHEMEN enpresakoa.
- Aritz San Sebastián, URRATS BAT proiektukoa.

Prestakuntza horren ostean, sormenaren arlo horretan emandako urratsen balorazioa egingo dute datozen hilabeteetan esperientzia gauzatu den herrialdeetan: Italian, Finlandian, Eskozian eta Euskal Herrian. Emaitzak oinarri hartuta, honako galdera hauei erantzuten saiatuko dira:

Nola eta zer zirkunstantziarekin gauzatu da sormena ikaskuntzan?

Nola eragin daiteke sormena?

Zer eginkizun dute jarduerak sortzaileek ikaskuntza-prozesuan eta nolako inpaktua dute pertsonen berrikuntzarako duten gaitasunetan?

Emaitza horiek hezkuntzako agenteei gomendioak edo aldaketak iradokitze balio izango dute, ikaskuntza-komunitateetan sormena eta berrikuntza hobetzeko xedez.

Los jóvenes, que han trabajado en grupos mixtos y fuera del aula, han tenido la oportunidad de seguir un programa concentrado que tenía en cuenta diferentes aspectos:

1. Conferencias de especialistas en Creatividad:

- Guillermo Dorronsoro de Innobasque: ¿Por qué necesitamos ser creativos?
- Jon Rodríguez, de Philips Holanda: ¿Cómo estimular la Creatividad?
- Fernando Alonso, de IZINKER: Técnicas para estimular la creatividad en el ambiente de trabajo.

2. Trabajos en grupos mixtos y aplicación de diferentes técnicas:

- Método de las txapelak de bono: Iñaki Mujika.
- Método Lego: Creativity Centrum.
- Diferentes metodologías: IZINKER.

3. Story Telling. Propias experiencias en el campo de la empresa y en el de la creatividad:

- Asier Esnal, de la empresa DHEMEN.
- Aritz San Sebastián, del proyecto URRATS BAT.

Tras esta formación, y durante los próximos meses, se evaluarán los pasos dados en este campo en los diferentes países donde ha tenido lugar la experiencia: Italia, Finlandia, Escocia y Euskal Herria y en los resultados se buscará la evidencia en:

¿Cómo y bajo qué circunstancias tiene lugar la creatividad en el aprendizaje?

¿Cómo se puede promover la creatividad?

¿Cuál es el papel de las actividades creativas en el proceso de aprendizaje y su impacto en las capacidades de las personas para la innovación?

Estos resultados servirán para sugerir recomendaciones o cambios a los diferentes agentes educativos con el fin de mejorar la creatividad y la innovación en las comunidades de aprendizaje.